hiruka

190. zenbakia
NEGUKO BEREZIA • 2022ko abendua

GABONAK 2022

Magia isiotu

MUXBARRI

PROGRAMAZIOA

ABENDUA>URTARRILA

MUSIKA

LUKIEK

TELONEROAK: SATAN TANGO

ABENDUAK 23 OSTIRALA **21:00 / 5 €**

MUSIKA

TXAPELONDO 2022
BERTSO JAIALDIA

ABENDUAK 27 ASTEARTEA **18:00 / 6 €**

MUSIKA

URTZ
ZABALDU ATEAK TOUR

ABENDUAK 30 OSTIRALA **21:00 / 12 €**

ANTZERKIA

SOUVENIR,
KOMERIA ESTRALURTARRA
HORMAN POSTER KOLEKTIBOA

URTARRILAK 13 OSTIRALA **21:00 / 8 €**

94 466 01 23
kulturetxea@getxo.eus
www.getxo.eus

Getxo bizi ezazu

Getxo Kultur Etxea bizi ezazu

Bizkaia foru aldundia diputación foral

EL CORREO

SALMENTA / VENTA
Kutxabank sarea/Red Kutxabank

Sarreren salmenta: Venta de entradas: www.kutxabank.es

Orotarako kutxazainak Cajeros multiservicio

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Maria Gorostiola
Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres, Ander Zarraga
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino
Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Iratxe Ormatza Imatz, Alex Orbe, ALBE, Patrizia Vitelli *Foodiario*, Saioa Miguel Moreno, Leire Lekuona, Joseba Santxo
Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 5.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak

Getxo bizi ezazu
Leioa Euskara Zerbitzua
Berangoko Udala
Barrikako Udala
Gorlizko Udala
Urdulizko Udala
Lemoizko Udala

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Aurkibidea

ELKARRIZKETA
Jon Etxebarria *Txontxe*: *Olentzero-enborra* 4-5

MUNDUKATUAK
Nola bizi dituzte Gabonak beste herrialdeetan? 6-7

IPUINA
Ate sorgindua 8-9

GABONETARAKO PLANAK
Donostia 10-11

2022ARI AGUR
Urteari begirada, 12 bertsotan 12-23

ELKARRIZKETA
Plentziako Olentzero-batzordea 24

OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRENTZAKO ESKUTITZA 25-26

GABONETAKO AGENDA 27

HELDUENTZAKO OPARI-PROPOSAMENAK 28-29

ERREPORTAJEA
Gabonetan, umerik ez dadila jostailu barik geratu 30

GASTRONOMIA-GIDA 32-33

HIRUKALAGUNENTZAKO ZOZKETAK 34-35

ZINEMAZ BIZI - IRAKURRIAN 36

HIRUKIRA OLGETAN
Etxeko txikienentzako denborapasak 38-39

USATEGI 42

Jon Etxebarria *Txontxe* *Olentzero-enborra* ipuina

«Ospa ditzakegu Eguberriak erlijioan eta kontsumismoan murgildu gabe»

TESTUA: **IKER RINCON MORENO**
ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Eguberriak ospatzeko beste modu bat bilatu guran, euskal herritarrak antzina zuten ohituretako bat berreskuratu du Jon Etxebarria *Txontxe* gorliztarrak. Dioenez, neguko solstizioan, «neguburuan», enborrak erretzen zituzten Eguzkiari indarra emateko, eta kiskalitako zur hori gordetzen zuten, adur ona ematen zuelakoan. Subil horiei Olentzero-enbor deitzen zitzaien, eta horretan oinarrituta, ipuin ilustratua argitaratu du Malen Amenabar ilustratzaileagaz batera.

Zer kontatzen duzue ipuin honetan? Eguberriak beste era batera ospatzeko aukera proposatzen dugu bereziki. Antzinako ospakizun bat berreskuratu nahi izan dugu, gurea, Euskal Herrian egiten zena, edo behintzat hori ikusarazi. Hausnarketa bideratu nahi dugu, gure sustraietatik tiraka, eta mitologia ere oinarri izanda, tradizioan oinarritutako ipuin baten bidez. Fikzioa da, baina kontatzen duguna da antzina Euskal Herrian egiten zena.

Ospakizunerako beste aukera bat

«Enbor bat topatu, erre, hurrengo egunean Eguzkiari ondo-etorria eman, eta egur zati bat gorde hurrengo urterako edo maite ditugun horiei oparitzeko. Hori da gure proposamena»

Nola bururatu zitzaizun mota honetako lan bat egitea? Pandemia bete-betean, bertoko baso batean elkartzen ginen hainbat familia, udalerrien arteko mugan. Halako batean, Gabonetan denok batera zerbait egiteko beharra ikusi genuen, ezberdina, eta hari horri tiraka, ikertzen hasi nintzen: Zer egiten zen lehen? Zelan ospatzen ziren Eguberriak Euskal He-

rrian? Eta hala, hainbat ikerlarik idatzitakoa irakurtzen hasi nintzen; hori dena aztertu eta gurera ekarri nuen. Zerbait egingarria izan daitekeena bilatu dut, eta gertukoa dena.

Eta, zelan ospatzen zituzten antzinako Eguberriak? Gaur egun, erlijioak pisu handia du ospakizunotan, baina antzina dena zegoen lotuta naturarekin. Abenduan egunak laburtzen hasten dira, argi gutxiago dago, eta neguko solstizioa izango zen ospakizun bat «hiltzear» dagoen eguzki zahar hori berpizteko. Horretarako, sua egiten zuten, eguzkia argitzeko. Ondo jasota dago hori leku askotan egiten zela, abenduaren 20-21 aldean; basora joan, haritz handi bat moztu, hari barkamena eskatu, etxera eraman, auzolanean zatitu eta erre egiten zuten hainbat egunez, sua itzali gabe. Ikatz edo enbor zatiak, baina, ez zituzten guztiz erretzen; magikoak zirelakoan, gorde egiten zuten zatiren bat hurrengo urterako edo oparitzen zituzten, adur ona erakartzeko.

Ipuinean, enborra eta Olentzero nahasten dituzu, ezta? Bai; Felix Muguruza ikerlariak hurrengo galdera egiten du bere blogean: «Eta Olentzero enbor bat bazen?». Horrekin, ikazkinaren izenaren jatorriaren teoria mahai-gaineratzen du, baina gu ez gara eztabaida horretan sartu; gurean hartu duguna da hainbat lekutan Olentzero-enborra deitzen zitzaiola zur-zati horri gaur egungo pertsonaia egon aurretik. Beste leku batzuetan subilaro, bazterreko enborra... izenekin da ezaguna hori. Hala, enborraren garrantzia hartu nahi izan dugu gaur egungo Eguberrietako ospakizun kontsumista eta katolikotik aldentzeko.

Auzolanean eta naturagaz lotuta

«Eguberriak naturarekin edo Amalurrarekin bat ospatzeko, eta kontsumismotik aldenduta. Ideia hori da: gure ohiturak berreskuratzea eta gaurkotzea»

Ipuinaren kontaketak

«Elkar argitaletxeak publikatu du ipuina, baina aurreikusten dugu eskualdean zehar ipuin-kontaketak egitea, hala nola eskoletan eta euskaltegietan»

Kontakizunari laguntzeko, Malen Amenabar ilustratzailearen laguntza izan duzu. Zelakoa izan da elkarlana? Hasieran, ipuina basoan kontatzeko idatzi nuen, lagunen artean eta naturan. Baina, harrera hain ona izan zen publikatzea pentsatu genuela, orain arte ez delako halakorik egon. Hala, hasieratik ikusi nuen ilustrazioak lagunduta izan behar zuela, eta horretarako Txakur Gorria kolektiboa etorri zitzaidan burura. Horretan parte hartzen du Malenek, laguna daukadanak, eta bere estiloa oso ondo ezkontzen zelakoan gaiarekin –modernoa baina antzinakoarekin lotuta–, berak parte hartu zuen proiektuan. ◂

Gabonak munduan, hamaika bi

Oleg Kulyk | Ukraina

«Urte berriaren jaia garrantzitsuagoa da Ukrainan»

Ukrainan Gabon ortodoxoak ospatzen dituzte eta, hori dela eta, gurean baino 13 egun beranduago hasten dituzte ospakizunak, hau da, urtarrilaren 6-7an. Gainera, Kulyk-ek gogoratzen duenez, Ukraina Sobietar Batasuneko kide zenean estatu ateoa zen, eta, hori dela eta, jai garrantzitsuena abenduaren 31n izaten da, urteari amaiera emateko eta berriari ondoetorria egitekoa. Afariak egiten dituzte bi datetan, abenduaren 31n zein urtarrilaren 6an, eta opariak banatzen dituzte lehenengoan: «Gurean, Ded Moróz-ek (Aitona Hotza) ekartzen ditu», diosku. Urteko azken gau horretan, erlojuak gauerdiko 12ak jotzen dituenean cavaz beteriko kopakaz topa egin eta ondokoak zoriontzen dituzte. Apaingarriei dagokienez, gurean bezala, argiak, zuhaitzak eta jaiotzak jartzen dituzte, eta jendartean kantatzeko ohitura dute; *Shchedrik* izeneko Gabon-kanta abesten dute.

Lucia Rakytová | Eslovakia

«Elurrak dakarren isiltasuna eta bakea oroitzen ditut»

Azaroan abendualdiaren koroa egin eta abenduko lehenengo domekan lau kandeletako lehena pizten dute. Horregaz ematen diete hasiera Gabonei Eslovakian. Jarraian, San Nikolas Eguna ospatzen dute, eta, egun horretan, oinetakoak, «garbiak», leihoen atarian jartzen dituzte, Nikolas Deunak gozokiz bete ditzan. Ondoren, abenduaren 24an, familia batu eta afari oparoa egiten dute elkarregaz. «Familiako emakumeek kozinatzen dute, aza-zopa, ketutako urdaiazpikoa eta arraina, besteak beste». Janari dena mahai-gainean egon behar da, afarian zehar altxatzeak adur txarra ekartzen duelakoan; gainera, oihalaren azpian dirua jartzen dute oparoaldia erakartzeko. Behin afalduta, Jesus umetxoak «ekarritako» opariak zabaltzen dituzte eta, ondoren, mezara joaten dira. «Elizara joaten ginen, elurpetan, isilik eta bengalak ingurua argiztatzeko. Magikoa zen une hori».

izipen

Ohi legez, abenduagaz batera Gabonak heldu zaizkigu. Tokiko ospakizunak ezagutzen ditugu, baina zelakoak dira munduko beste lekuetan? Horri erantzuteko, gurera bizitzera etorri direnengana jo dugu. Batuko zara bidaiara?

Leonardo Leon | Ekuador

«Alabak hemengoak direnez, Olentzero ospatzen dugu»

Leonardo Leonek 23 urte daroatza gurean bizitzen, beraz, daborduko bere egin ditu hemengo ohiturak: «Olentzero ospatu eta Gabonetan hemengo jatekoak prestatzen ditugu». Dioenez, abenduaren 24an bere familiagaz elkartzen da gau berezia ospatzeko. Hala ere, txikitan, Ekuadorreko Gabonak apur bat ezberdinak zirela gogoratzen du: «Oilar-mezara joaten ginen eta, gero, etxean denok batera afaltzeko elkartzen ginen, opariak eta guzti. Jakiak oso bestelakok ziren, baina nik ez nuke jakingo horiek prestatzen». Aitortu du faltan dituela hango ospakizunak, «azken finean, beste ohitura bat zen eta hainbat elkartzen ginen, hemen ez gara horrenbeste batzen, pisu batean bizi baikara». Urtezahar-gauari dagokionez, jaia ezberdina dela dio, lagunakaz eta beste era batera ospatzen baitituzte, «ez hain familian».

Daniela Tataru | Errumania

«Txarto portatu diren umeek enbor bat jasotzen dute»

Elurra da Daniela Tataruk Errumaniako Gabonetatik gehien faltan duen gauzetako bat. Hala ere, han zein hemen, ospakizuna nahiko antzekoa dela dio: hemen, katolikoa, eta, han, ortodoxoa. Gabonak abenduaren 6an, San Nikolas Egunean, hasten dituzte: bezperan, umeek euren oinetakoak uzten dituzte atarietan gozokiak eta frutak jasotzeko, «baina, txarto portatu direnek enbor bat jasotzen dute», dio Tataruk. Sasoi horretan, Gabonetako jatekoetan ezinbestekoa den txerria ere hiltzen dute, «lodiena eta ederrena aukeratzen dugu», eta hortik, Gabonetarako ez ezik, urte osorako janaria ateratzen dute. Bere Gabonetako jateko gustukoena *sarmale*-ak direla dio: haragiz, arrozez eta barazkiz betetako aza biribilkiak. «Gehienok familia eta lagunak ditugu hemen, beraz, elkarregaz ospatzen ditugu Gabonak», eta, horretarako, abenduaren 25ean eta 31n ere elkartzen dira.

Ate sorgindua

Gifor grifoa eta Adabar adarbakarra Pagotxa pagoaren ondoan daude, Surgartxu lagunari itxaroten. Eguzkia, berriz, nagiak ateratzen dabil, esnatu berri Alegiazko munduan. Halako batean, «brist» entzun dute. Begiratu eta sor eta gor geratu dira. Zurrunbilo bat! Adabarri adarra eta Giforri ilea zuritu zaie bat-batean, ezustekoagaz. Jakin-minez zurrunbilora hurbildu dira.

– A-a…. a-ateee… –hasi da esaten Adabar.

– So-so-sorginduaaa… –amaitu du esaten Giforrek.

Klausk xurgatu ditu lagun biak ate sorginduak, eta dzaka jaurti beste nonbaitera.

Lagun biak bilin-balan jausi dira, zorabiatuta.

– Non gaude? –galdetu du Giforrek.

– Bas-baserriak eta etxeak, Gifor! –erantzun dio Adabarrek, ahotsa dar-dar duela.

– Ene! Gizakien munduan gaude-eta, –esan du harrituta, eta gero triste– baina Surgartxu falta zaigu-eta!

– Lastima! Hirurok batera hobeto egongo ginen.

– Ssss, berbaroa entzun dut… gizakiak dira! –esan du dar-darka Adabarrek.

Alegiazko munduan, gizaki handiek ez dute ospe onik. Animaliak eta piztiak harrapatzea gustatzen ei zaie. Giforrek eta Adabarrek ez dute nahi gizakien harrapakinak izan. Ez! Beraz, baso barrura joan dira, gordeleku baten bila, orbelak zapaltzean kris-kras ahalik eta isilen egiten.

Luzaro egon dira gordelekuan beldurtuta, hortzei eta mokoari eusten, klak-kak ez egiteko. Halako batean, umeen berbotsa entzun dute. Umeek ospe ona dute, ametsetan egiten dutenean Alegiazko mundura joaten dira hango piztiakaz jolasteko. Giforrek, Adabarrek eta Surgartxuk ederto pasatzen dute umeakaz.

– Begira! –esan du umeetako batek harrituta.

– Grifo bat eta adarbakar bat! –esan du beste ume batek pozik.

– Hara, bai! –esan du hirugarren umeak, aho zabalik.

Gifor eta Adabar adi-adi daude, harri eta belarri, jakin barik zer esan, ez dute ulertzen umeen hizkuntza Gizakien munduan.

Umeek keinuak egin dizkiete esateko galdu egin direla.

Gifor eta Adabar makurtu egin dira, umeak lepora igoteko. Pozik daude, ez dago umeei laguntzea bezalakorik. Zuritasuna apur bat joan zaie iletik eta adarretik.

Ostuka, zuhaitzik zuhaitz joan dira, harik eta umeek gurasoak deiadarka entzun duten arte. Umeak jaitsi eta besarkatu egin dituzte Gifor eta Adabar. Agur!

Barrua apur bat ilundu zaie, Surgartxuren falta daukate.

– Zertan ibiliko ote da Surgartxu? –itaundu du Giforrek, troinua egin zaiola estomagoan.

– Gugaz egongo balitz, zer egin jakingo luke.

– Bai, jakingo luke, baina guk zer egin behar dugu orain gizakiek gu ez ikusteko eta etxera itzultzeko?

Burumakur joan dira baso barrura, eta errekatxo batean edaten hasi dira. Azeri bat ere hurbildu da edatera:

– Entzun dizuet, eta gizakiekin ez baduzue topo egin nahi, gauez ibili. Gizakiak etxera joaten dira-eta.

– A, bai, e! Ba, eskerrik asko.

– Ala, agur, banoa lotara –esan du azeriak.

Gifor eta Adabar tripako mina dute, gose dira eta aldi berean ez dute ezer jan nahi. Oso arraroa da.

Arbola baten azpian jesarri dira, eta loak hartu ditu, ze barrua estutua izan arren, oso nekatuta daude, hainbeste gauza gertatu zaie!

Begiak itxi eta batera, ametsetan hasi dira: Alegiazko mundura egin dute salto Giforrek eta Adabarrek. Han Surgartxugaz batu dira, eta kontatu diote Gizakien munduan daudela, ate sorginduak xurgatu dituela, eta ez dakitela zelan itzuli etxera, eta beldur direla, eta mesedez laguntzeko.

Surgartxu pozik ipini da lagunak ikustean, bihotzak tau-taup egin dio ezin ozenago, eta esan die Mariri eskatuko diola laguntzeko.

– Pagotxa pagora joan gautu eta gero, bale? –esan die Sugartxok.

– Konforme!

Gifor eta Adabar esnatutakoan, gau da. Bizi-bizi daka-daka joan dira Pagotxarantz, saltoka daukatela bihotza eta troinu txiki bat estomagoan. Gizakirik ez da entzuten inguruan, gauhontzak uluka bakarrik. Uluak kantarik politena iruditzen zaie.

Bien bitartean, Surgartxu arin-arin joan da Marirengana laguntza eske. Marik esan dio:

– Ate sorginduak harrapatu ditu, ezta? Udagoieneko WWeklipsea igaro berri da, eta halakoetan berez zabaltzen da ate sorgindua.

– Mari, ekarri behar ditugu, zelan baina? –galdetu dio Surgartxu arduratuta.

– Artetu eta trankildu, Surgartxu... –esan dio tenple handiagaz Marik.

– Goazen.

Eta biek zerua zeharkatu dute Pagotxaraino.

– Baga, biga, higa, laga, boga, sega, zabaldu-zabaldu Gizakien munduaren eta gure artekoaren atea –esan du Marik, eta fizzz, haizea bota du ahotik.

Zurrunbilo bat sortu da, eta ate barrura sartu dira Mari eta Surgartxu. Handik irten eta:

– Surgartxu! Hau poza! –esan dute Giforrek eta Adabarrek, eta biei kolorez bete zaie azala, ezin pozago egoten direnean horrela ernarazten zaie gogoa. Zuritasun arrasto barik ez ilean ez adarrean.

Poza ez zaie gorputzean kabitzen hiru lagunei. Salto gura dute egin, korrika, besarkatu, hegaz, dena batera, baina eutsi diote.

Marik berriro deitu dio ate sorginduari:

– Baga, biga, higa, laga, boga, sega, zabaldu-zabaldu Gizakien munduaren eta gure artekoaren atea –eta fizz, haizea bota du ahotik.

Alegiazko mundura heldu direnean, saltoka, hegaz, korrika, elkar besarkatu, eta hiruren artean gaueko ostadarra zabaldu dute zeruan. Ez dago poz handiagorik mundu osoan.

ILUSTRAZIOA: **ALEX ORBE**

Iratxe Ormatza Imatz

Bakiotik Ingalaterraraino egin nuen buelta, soziologia ikasteko, York eta Kenteko unibertsitateetan. Handik etorri eta barruko errekari ubidea eman nion.

Lehen argitalpena *Hegoak* kronika-liburua izan zen, eta harrezkero, 31 ipuinek ikusi dute argia, Idatz&Mintz literatura-aldizkarian batez ere. Umeei eskainitakoak HIRUKA-n argitaratu ditut, hauxe zazpigarrena da. Gozamena izan dadila zuentzat ere.

Donostian ederto pasatzeko

Eureka! | Zientzia Museoa

Donostiako erdigunetik 15 minutura, ingurune natural batean, zientziaren museoak zortzi areto tematikotan banatutako erakusketa iraunkorra du. Hala ere, ez dira ikusteko eta gozatzeko dituen aukera bakarrak; LEGO materialen bidez, robotika eta programazioa duten jardueraz betetako Logik aretoa ere badu museoak, eta astronomia-zaleentzako planetario digitala dute eskura, Eguzki Sistematik kupula osora bidaiak egin ahal izateko. Gainera, Animalia aretoan hiru giro berezi birsortzen dituzte, bertan, ekosistema horietako bakoitzeko 20 espezie adierazgarri ezagutu ahal izateko. Halaber, zientzia-ikuskizun ugari eskaintzen dituzte, hala nola animazioak, bisita gidatuak Animaliara eta proiekzioak hizkuntza ezberdinetan planetarium digitalean. Gozatu familiako edo lagunen arteko plan batez. Zientzia ez da inoiz hain dibertigarria izan.

Igeldo mendia | Atrakzio-parkea

Kontxako badiari begira, fantasiazko mundu batean murgiltzeko aukera eskaintzen du Igeldo mendiak; atrakzio-parke bakarra eta berezia inguruotan, askotarikoak eskaintzen ditu, baina, denen artean nabarmentzen da Suitzar mendia, Kantauri itsasoko olatuetan gora eta behera zabiltzala sentiaraziko dizuna. Igeldo lasaitasunez gozatzeko eta bertan igarotako minutu bakoitza dastatzeko parkea da, XX. mendearen hasierako jolas-parkeen esentzia eta edertasuna gordetzen duten 20 atrakzio ditu eta familia osoak gozatzeko modukoak dira denak. Halaber, parkearen erdian, Dorre handi bat dago, XVIII. mendean eraikitako itsasargia da. Bertan, gure bizimodu eta ohiturak azaltzen dituen erakusketa dago ikusgai, eta gainera, paisaia ezin hobeez gozatzeko parada eskaintzen du: Matxitxako lurmuturretik, Frantziako Landetaraino. Galduko duzu?

EuskarAbentura espedizioa 2023
IZEN EMATE EPEA IREKITA MARTXOAREN 3RA ARTE!
www.euskarabentura.eus
Babesleak
Laguntzaileak
Hedabide laguntzaileak

planak

Ez da beharrezkoa urrutira joatea Gabonetako opor-egunez gozatzeko. Inguruotan hamaika aukera ditugu eskura, eta, horietatik guztietatik, Gipuzkoako hiriburua aukeratu dugu oraingoan: Donostia.

Aquarium | Itsasoko sekretuak agerian

Europako akuariorik onenetakoa dugu Donostiakoa, portuaren bazter batean kokatuta, 200 espezie baino gehiago eta 10.000 arrainetik gora batzen dituena, tartean, bost marrazo-espezie. Hala ere, Aquarium-a ez da akuarioz osatutako gune soil bat: museo ozeanografikoa ere bada. Horrek, ondare-elementu baliotsuak ditu, Euskal Herriko eta tokiko itsas historia aberatsa azaltzen eta testuinguruan kokatzen laguntzen dutenak. Gune horietan, euskal arrantzaren eta kortsarioen iragana ezagutzeko parada dute bisitariek, baita nabigatzaileen balentria handietarako erabilitako ontziak ikusteko ere. Gainera, nola ez, ibilbidean zehar, akuarioez gozatzeko aukera dago, arrainez, ornogabe zoragarriez eta ozeanoak duen biodibertsitate aberatsaren neurri egokia ematen duten beste hamaika espeziegaz batera. Mundu honetan txonbo egiteko prest zaude?

Tabakalera | Kulturaren erdigunea

Egia auzo kosmopolita, dinamiko eta gaztearen erdian, kultura garaikidearen nazioarteko zentroa dugu: Tabakalera. Eskaintza zabala du guneak, aisialdiaz, tokiko gastronomiaz, arteaz, musikaz eta arte biziez gozatzeko modukoak. Egun, erakusketa bi ditu martxan: “Vive le cinéma!” eta “Promesen testura”, gainera, zinema-emanaldiez gain, aldiro, zuzendariek hainbat aurkezpen egiten dituzte bertan. Familia-giroan primeran pasatzeko aukerak ere eskaintzen ditu zentro honek, hala nola arte lantegiak erakusketetan; txikienentzat bereziki prestatutako gune berri bat ere badu eraikinak, 0-6 Txokoa. Inondik inora, jarduera inspiratzaileak eskaintzen ditu Tabakalerak hiriko eraikin esanguratsuenetako batean. Besteak beste, paseoan ibil daiteke baita ere hango plaza publikoan, baita hiriaren ikuspegi zoragarriez gozatu Prismako terrazatik. Zer gehiago gura duzu?

Itzaletik erdigunera; zelan bizi izan dute gazteek pandemia-garaia?

Nerabeek pandemia-garaian bizi izandakoak eta euren papera zein izan zen azaltzeko proiektua garatu du Bi · hotz elkarteak. Besteak beste, 2022ko urtarrilean dozenaka gaztegaz abiatutako sentsibilizazio-tailerretan ateratako ideiak eta ondorioak azaleratu dituzte erakusketa ibiltari bategaz, «isildutako ahotsak erdigunean jarrita».

TESTUA: **IKER RINCON MORENO** ARGAZKIA: **BI • HOTZ ELKARTEA** ▶

Oihan Diaz Franco Algorta

Nahiz eta hil amama,
auzoko zein lagun;
nahiz eta geneukanok
lana galdu dugun;
nahiz eta denon gisan
arduratsu jardun,
geu izan omen ginen
denaren errudun.

Etxe edo tabernan
joan dira urte bi;
pantailek zizkiguten
gorritzen bi begi.
Psikologoak behar,
ertzainak ageri,
baina kexatzen omen
ginen errazegi.

Gazteok arazoak
bageneuzkan lehendik;
pandemiak handitu
zituen bakarrik
eta tamalez berdin
gaudenez oraindik,
ea garai hobeak
ditugun aurretik.

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Alconzako lantegiaren etorkizunaren eta lanpostuen alde, 151 egun borrokan



Otsailaren 28tik uztailaren 28ra, 151 eguneko greba burutu zuten Berangoko Alconzako lantegiko hainbat beharginek. Helburua zen kaleratzeak ekiditea eta lantegiaren etorkizuna bermatuko duen industria-plana adostea; azkenean, 25 langile kaleratu dituzte, baina planaren oinarriak osatzeko bermea adostu zuten alde biek.

TESTUA: **IKER RINCON MORENO** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Josu Arroyo Izkoa Algorta

Barruko amorrua jada ezin gordeta, kalera atera ziren indarrez beteta. Alconzako langile minduen protesta... hartan jarri behar dut oraintxe arreta.

Norberaren gogoak egiten du behera botatzen dutenean kidea kalera. Halakoen aurrean isildu, bai zera! Borrokatu behar da, guztiok batera!

Berangok ez du ahaztu baitauka gogoan; greba mugagabea ez zen alferrik joan. Argazkiaz gogora gaitezen geroan: langileak borrokan, herria ondoan.

Algortako Bertsolari Eskola

Itzubaltzeta/Romoko nagusien etxearen defentsan, adinekoak tinko

Getxoko Udalak Lope de Vega kaleko 12 zenbakiko eraikinak hesitu zituen abuztuaren 17an horiek eraitsi eta, Aldundiagaz batera, belaunaldien arteko zentro bat eraikitzeko asmoz. Epaitegiek, baina, prozesua behin-behinean geldiarazi du, eta, bitartean, tokiko nagusiak eta auzokideak eraikin «historikoak» manten daitezela aldarrikatzen ari dira.

TESTUA: **IKER RINCON MORENO** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Aitor Esteban Etxebarria Itzulbatzeta/Romo

Aginteak gura dau poltsikoa igurtzi,
beran dibisa danak urrezti ikusi.
Nagusien etxean paradoxa itsusi:
espekulazioa etxean nagusi!

Lehen euskaltegia
ta nagusi batza,
auzotarrok gintzezan
etxeko ardatza.
Eraistearen aurka
protesta ta martxa:
geure duintasuna
orube hontan datza!

Eraikinak eukazan
distira ta apar;
orain itzalpe bat da
ilun bezain zatar.
Baina zauriak beti
bere orbana dakar:
balio izan deusku
hartu daigun alkar!

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Emakumeen kontrako indarkeria historikoa izan da sorgin-ehiza

Sorgin-ehizaren atzean zeuden benetako arrazoi politiko eta ekonomikoak aztertu zituen martxoan Getxoko Skolastika Feminismo Mintegiak. Horretarako, besteak beste, inguruotan ezezaguna den adibide bat aztertu zuten: Durangoko emakumeen jazarpena eta erreketa XVI. mendean. Horren inguruan jardun ginen Josune Muñoz ikertzaileagaz.

TESTUA: **IKER RINCON MORENO** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Arrate Illaro Etxebarria Algorta

Arbuiatzen ditugu psikologikoa, fisikoa ta, are, ekonomikoa, sexu-indarkeria nahiz obstetrikoa... Ta zein erraz onartzen den sinbolikoa.

Nork nondik kendu behar dituen ileak, ezkutuan mantentzen diren zaintzaileak, betiko txiste txarrak, publi epaileak... Sotilak baina zeinen blokeatzaileak.

«Sorgina» txarra dela pentsatzea bera indarkeria zantzu argia ez ote da? Ai zenbat lan daukagun hemendik aurrera izeberga atera dadin azalera!

ALBE
Algortako Bertsolari Eskola

Euskararen alde, hitzez ekiteko urtea izan da aurtengoa Korrikari eta Euskaraldiari esker

«Hitzekin» zioen 22. Korrikaren leloak, eta «Hitzez ekiteko garaia» 3. Euskaraldiarenak. Ekimen bietako antolatzaileek argi zuten hasiera-hasieratik aurtengoa «Hitza eta Ekintza»ren urtea izango zela. Hala, apirilean eta azaro-abenduan, milaka euskaltzalek euskararen aldeko ekintzak eta konpromisoak bere egin dituzte aurten.

TESTUA: **IKER RINCON MORENO** ARGAZKIA: **KORRIKA** ▶

Josu Landeta Egurrola Getxo

Udaberria hasita
landetan jostari,
hauspoa eman genion
denok Korrikari.
Halere huts bat dugu,
argi ibil hadi:
gogoa sutsu dago,
baina hortzak nagi.

Hitzekin kale hotzetan
soilik ezin jardun,
orain Euskaraldia
dugu berton lagun.
Ehunka saltoki, kale,
lankide eta ezagun
gure berben uretan
murgildu ditzagun.

Sarritan hain seguru,
sarritan zalantzan,
berbaroa airetik
ari da balantzan.
Hitzez ekiteko aro
onen esperantzan,
euskaraz jarri dira
mila mingain dantzan.

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Euskararen kale erabilera hauspotzeko bidea egiteke dago oraindino gurean

Iaz, Soziolinguistika Klusterrak egindako azken ikerketaren arabera, zortzi lagunetatik bat –edo herritarren % 12,6a– euskaraz aritzen zen Euskal Herriko kaleetan. Gurean, aldiz, emaitzak bestelakoak izan dira, uribekostarren % 3,6 eta % 13,1 aritzen baitzen euskaraz, Bilbo Handia eta Plentzia-Mungia guneetan banatuta, hurrenez hurren.

TESTUA: **IKER RINCON MORENO** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Galder Bilbao Martinez *Txapi* Udondo

Beti gaude emaitza
eta datuen zai,
ondorioekin gero
triste edo alai.
Edozer egiteko
aspaldi gara gai;
gaia konplexua da,
irtenbidea ere bai.

Irulegitik hasi
eta hainbat ale;
Euskaraldia atzo,
gu euskarazale.
Sorionekuak gara,
ados eta bale;
lurpetik kalera ta
ez da egin behar kale.

Euskarak izan ditu
dozenaka aro,
datu ta grafikoak;
txostena hor dago.
Paperetik joan behar
gara haratago;
teori gutxiago,
praktika gehiago.

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Uribe Kostako bertsolari gazteak, euskal kulturaren jarraikortasunaren bermea

Aurten, finaletik kanpo geratu diren arren, 2021ean garaipena lortu zuen eskualdeko bertsolari gazteen taldea finalaurrekoetara heldu da. Urte luzez egindako lanaren emaitza da belaunaldi gazteek bertsolaritza eta euskal kulturarekiko interesa izaten jarraitzea; baina bide horretan, egiteko asko ere badagoela azpimarratzen dute.

TESTUA ETA ARGAZKIA: **ANDER ZARRAGA**

Aritz Landeta Terceño Getxo

Belaunaldi berriak
behera eta gora,
krisirik krisi goaz
zulotik zulora.
Presa ei dugu eta
ezin joan inora,
zahartzen garen artean
hala izango da.

«Ardura bako eta
axolagabeak,
alferkerian eta
tranpetan trebeak».
Hori esaten digu
lehenengo kateak
eta ez gara ageri
inondik gazteak.

Nik esango dizuet
gazteok garena:
gogo bizia dugu,
zorrotza eztena;
denontzat da garaipen
gure garaipena,
galtzeko gutxi dugu,
aldatzeko dena!

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Bi urteko geldialdiaren ostean, udako jairik desiratuenak bueltatu dira

Herri eta auzoetako jai-batzorde asko berritu dira, kontzertuetan entzundako musika ere ez da lehengo berdina izan, baina, ukaezina da, bi urteko lehortearen ostean, jairik desiratuenak izan direla. Balantzea egin eta hurrengo urteko jaiei begira lanean ibiliko dira daborduko festaren alde lan egiten duten herritar anonimo horiek guztiak.

TESTUA ETA ARGAZKIA: **ANDER ZARRAGA** ▶

Kerman Diaz Franco Urruña

Borondatezko lan ta
ardura kopuru;
txosnak eta tabernak
pertsonaz mukuru.
Bi uda luzez egon
ondoren aiduru,
faltan genituela
azkar ahaztu dugu.

Lehenetik ez baikara
gehiegi urrundu:
erasoak, ziztadak,
festen azpimundu.
Etxera bidali zein
etxera lagundu;
oraindik ere pozak
beldurra lagun du.

Udako jai eremu
ta txosna inguru,
betiko juergazale
eta artaburu.
Nahiz eta abenduak
azkar goibeldu gu,
ohartzerako bueltan
izango ditugu

ALBE
Algortako Bertsolari Eskola

Ziztada bitartez egindako erasoek dimentsio berria eman diote indarkeria matxistari

Jaiak bueltatu diren uda honetan, aski ezaguna den gaitz onartezin bat ere bueltatu da: jai-giroan emakumeen eta bestelako genero ez binarioen aurkako erasoak. Aurten, denon ahotan egon dira hainbat jaietan salatu diren ziztadak. Hori gutxi balitz, oraingoan, Mugimendu Feministaren jarduna ere zalantzan jarri dute hainbat erakundek.

TESTUA: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIA: **ALGORTAKO MUGIMENDU FEMINISTA**

Imanol Uria Albizuri Getxo/Algorta

Indarkeri fisiko
zein oihuen zaunka,
basuan droga bota
zein ziztatu mahuka,
helburu berdina da,
desberdina pauta
ta erasoak beti
emakumeen aurka.

Nahiz erasoen kontra
gauden parez pare,
bilgune feministan
egizue galde,
epaileen aurrean
bi neska baitaude...
Ertzaintza ere beti
gizonaren alde!

Udara pasatu da,
ziztadak igaro...
dena ahaztuta dago
bat baino gehiago.
Nahiz horrela geundekeen
askoz lasaiago,
ziztadak pasa arren
problema hor dago.

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Urte bi igaro dira Arpillaoko lokaletako elkarteak kaleratu zituztenetik

Arkote Arraun Taldea, Ambar Elkartea, Plentziako Piraguismo Taldea, Danontzat gaztetxea eta Plentzia Traineru Baltza euren egoitzetatik kaleratu zituzten 2020ko abenduan. Ordutik erdipurdiko adabakiak besterik ez dituzte izan, eta behin eta berriz aldarrikatu dutenez: «Nekatuta gaude, konponbideak nahi ditugu».

TESTUA ETA ARGAZKIA: **ANDER ZARRAGA** ▶

Peru de Pedro Larrea Gorliz

Arpillao itxi zan
bi urte dirala,
pitzaduraz beteta
eraikin makala.
Noraezean dabil
oraindik udala,
herriraino hedatu
dabe arrakala.

Arpillaok hogeita
hamar urte soilik,
baina hondamendia
hain gertu jadanik!
Akatsak beraz datoz
eraiki zanetik,
eraikitzen ezin da
hasi teilatutik!

Gaztetxea hustu ta
ezin aparkatu;
Arkote, sorosleak...
danak kanporatu!
Kale gorrian dagoz,
non hartu ostatu?
Udaletxera joan
eta okupatu!

ALBE
Algortako Bertsolari Eskola

Kultur ikuskizunak inoiz baino indartsuago bueltatu dira pandemiaren ostean

Artekale, KaleFest, Umore Azoka... Bi urteko lehortearen ostean, mota guztietako kultur ikuskizunek inoiz baino indar gehigogaz hartu dituzte kaleak. Etenaldi horretan, antzerkia, dantza eta bestelako adierazpen artistikoak denon esku izatea zein garrantzitsua eta onuragarria den konturatuko zen bat baino gehiago.

TESTUA: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Jone Uria Albizuri Getxo/Algorta

Antzerki lan batekin topo parez pare; musika plazan ozen, arkupean bare; pintada bat paretan mezu baten jabe: kalea ez da kale kulturarik gabe.

Aretoko besaulki bateko pasarte; galeriako obra museoko arte. Noraino dira gure herriaren parte? Kultura ez da kultura kaletartu arte.

Pandemiak eraman arren ezkutura bertso, kantu, komiki eta eskultura, zorionez berriro ere bueltatu da kulturara kalea, kalera kultura.

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Gau Beltza, geure usadioa ala euskaldundutako Halloween jaia?

Halloween AEBetatik etorritako ohitura kontsumista dela eman dezakeen arren, Gau Beltza edo Arimen Gaua oso bertako ospakizuna da. Mozorroak, beldurra eta kalabazak ez dira besteren kontuak; duela 50 urtera arte, oso ohikoa zen umeak, kuiak edota arbiak erabilita, aurpegia estali eta bihurrikeriak egiten ibiltzea Domu Santu bezperan.

TESTUA: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIA: **EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA** ▶

Unai Angulo Aldekoa Algorta

Arimen Gaua edo Gau Beltza ere bai, zer diren azaltzeko ia ni naizen gai: hildakoen arima bizi dadin lasai, udazkena heltzean egiten dugu jai.

Itxura beldurgarriz mozorrotu hadi; kalabazak jartzen du Gau Beltzean argi; eskean joaten gara «ziri edo sari» jarraipena emanez geure ohiturari.

Baina asmatu dute kontsumo makina; izena du HALLOWEEN, denontzat berdina. EROSI mozorroa polita ta fina; honi buelta emateko bada zeregina.

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Plentziako Olentzero-batzordea *Olentzero eta Mari Domingi* antzezpena

«Plentzian, galdu ezin daitekeen urteroko Gabonetako ohitura da»

ANDER ZARRAGA ▶

Duela 41 urte hasi ziren Plentzian Olentzeroren etorrera ospatzeko antzezlana egiten. Kalejira txiki bat bezala hasi zen ekimena, urteakaz, asko hazi da, eta Mari Domingi eta beste hainbat pertsonaia gehitu zaizkio. Gaur egun, 120 parte hartzaile baino gehiago dituen ikuskizuna da, eta hiribilduko Gabonetako ezinbesteko ekitaldia da gazte zein nagusientzat.

«Gutxika, euskal mitologiako pertsonaiak joan dira sartzen, eta aurten ere dantza eta pertsonaia berriren bat egongo da», aurreratu du antzezlanaren antolakuntza-lanen koordinazioan dabilen Mercedes Etxegaraik. Hala ere, argitu du antzezlanak aurreko urteetako ildo bera jarraituko duela. Gainera, aurten ez dute aurreko bi urteetan COVID-19ak eragin zituen buruhausteak izango; izan ere, 2021ean, lehen aldiz frontoian egin behar izan zuten antzezlana, edukiera kontrolatzeko.

Urtero, irailean hasten dituzte prestakuntza-lanak. Horietan dabiltzan kide guztiak boluntarioak direla azpimarratu du Etxegaraik: «Zortzi pertsonako talde bat gabiltza horretan, eta bakoitza ikuskizunaren atal batez arduratzen da: jantziak, dantzariak, hornitzaileak...». Dioenez, urtez urte aktoreak aldatzen doaz, «adinaren arabera, nagusiak direnean berriak sartzen saiatzen gara, nahiz eta herri txikia izanik hautagai askorik ez izan».

Koordinatzaileak azpimarratu duenez, «herrian oso errotuta dagoen urteroko ohitura da, jende askok parte hartzen du eta herri guztia etortzen da ikustera. Kanpotik datorren jendearentzako ere berezia izan daiteke, beste herrietan normalean ez delako horrelakorik egiten; horregatik ere da hain berezia guretzat».

Kalejiraren ondoren, ikuskizun nagusia Eliz plazan egingo dute, 19:00etan.

«Parte hartzeko ez da dantzan jakin behar, egitekoa erraza da eta datozenei guk erakusten diegu jakin beharrekoa»

MERCEDES ETXEGARAI
OLENTZERO ETA MARI DOMINGI ANTZEZLANAREN ANTOLAKUNTZA

Anbotoko Mari, Basajaun, artzainak, naturaren lau elementuak (ura, sua, haizea eta lurra), jentilak, sorginak, lamiak... Askotariko pertsonaiaz osatutako antzezlana abenduaren 24an bueltatuko da. 18:45etik aurrera, zubitik atera eta alde zaharreko kaleetan gora egingo dute Eliz plazan Olentzero eta Mari Domingiren etorrera handikiro ospatzeko. ◀

Idatziozu gutuna Olentzerori!

Kaixo, Olentzero eta Mari Domingi

hiruka



Olentzero eta Mari Domingiren borda

Basoko bidea, 24
Euskal Herria

Badatoz!

Barrika
Abenduak 23, barikua
19:00 Olentzero eta Mari Domingiri harrera Euskal Dantzak taldeagaz. Ostean, txokolatada eta gaztaina-banaketa.

Berango
Abenduak 24, zapatua
18:30 Keljira Olentzero eta Mari Domingigaz. Kultur etxetik abiatuko dira eta pilotalekuan egingo diete harrera.

Abenduak 27 eta 28
11:00- 20:00 Umeentzako Gabonetako parkea, pilotalekuan.

Getxo
Abenduak 23, barikua
17:00 Umeentzako tailerrak, Malakaten.
18:00 Olentzero eta Mari Domingiren harrera, Gernika parkean.
18:30 Antzerkia: *Salam*, Areetako Eskoletako plazan.
19:00 Algortako Olentzero eta Mari Domingiren etorrera Telletxe plazan. 20:00etan, taberna ibiltaria, San Nikolas plazatik.

Abenduak 24, zapatua
10:30 Kalejira Areetako Eskoletako plazatik Bizkaia Zubia plazara.
11:00 Puzgarriak umeentzat, Algortako Telletxe plazan.
16:30 Kalejira Algortatik, Bidezabaletik San Nikolas plazara.
17:00 Algortan, Olentzero eta Mari Domingiri harrera: txalaparta, bertsolariak, dantzariak, Xabier Payaren eskutik Olentzeroren kondaira eta, bukatzeko, panpina erre.
17:00 Andra Mariko kiroldegitik hasita kalejira, .
17:30 Itzulbatzeta/Romoko kalejira Santa Eugenia plazatik.
18:30 Kalejira Areetako Eskoletako plazan hasi eta amaitu.

Gorliz
Abenduak 24, zapatua
18:30 Antzerki ikuskizuna: *Olentzero eta Mari Domingi*.

Erandio
Abenduak 23, barikua
18:30 Erandiogoikoan Olentzero eta Mari Domingiren kalejira.
20:00 Xaibor disko-festa.

Abenduak 24, zapatua
17:30 Olentzero eta Mari Domingiri ongietorria, Ignacio Aldekoa ikastetxean.
17:30 Kalejira Mendiguren plazara dantza eta musikagaz.
18:00 Olentzeroren kalejira, Irailaren 23a plazatik.

Leioa
Abenduak 24, zapatua
17:00 Errotatik aterako da Olentzero eta Mari Domingiren kalejira eta Kultur Leioan bukatuko da.
17:30 Lamiakon, metro-geltokian harrera Olentzero eta Mari Domigiri.
17:30 Pinuetan, kalejira Itzubaltzeta/Romoko Santa Eugenia plazatik. Ostean, Olentzero erretzea eta txokolatada

Urtarrilaren 2tik 5era
12:00 Umeentzako Gabonetako parkea, Kandelazubietan. Arratsaldeetan, 18:00etatik aurrera.

Lemoiz
Abenduak 24, zapatua
17:00 Olentzero eta Mari Domingiri ongietorria. Andrakatik Armintza eta Urizarrera joango dira. Bukatzean, antzerkia.

Abenduak 29, eguena
12:00-20:30 Gabonetako parkea. Adin guztietarako jolasak eta ekimenak egingo dituzte Armintzako pilotalekuan.

Plentzia
Abenduak 24, zapatua
18:45 Harrera Zubi Zurian eta kalejira alde zaharretik.
19:00 *Olentzero eta Mari Domingi* antzezlana Eliz plazan.

Sopela
Abenduak 24, zapatua
17:00 Olentzero eta Mari Domingiren kalejira, Larrabasterratik atera eta harrera egingo diete Udaletxeko plazan.

Abenduak 27, 28 eta 29
11:00- 14:00 eta 17:20:00 Umeen Gabonetako parkea.

Urduliz
Abenduak 24, zapatua
17:00 Olentzero eta Mari Domingiren kalejira, Igeltzerako aparkalekutik Udaletxeko plazara. Euria bada eskoletan egingo diete harrera.

Gabon hauetan erosi hurbileko

Aldai ARTISAU-TAPIZTEGIA

Basagoiti etorbidea, 32. ALGORTA
Tel.: 944 609 031

Artisau-tapiztegia: dekorazioa, erakusketa eta tailerrak.

Oihalak eta margoturiko horma-paperak, metroka salgai.

Irati MODA GAZTEA ETA OPARIAK

Torrene 2, ALGORTA
Tel.: 944 911 271
iratialgorta@gmail.com

1. **Eskuz egindako motxila**
   73€
2. **Artisau-eran egindako lepokoa**
   47,50 €
3. **Eskuz egindako belarritakoak**
   29,80€

Iñaki BITXITEGIA

Villamonte plaza, 3. ALGORTA
Tel.: 944 302 345
informacion@joyeriainaki.es
www.joyeriainaki.es

4. **Eraztuna**
   Dendan galdetu prezioak
5. **Eskumuturrekoa**
   Dendan galdetu prezioak
6. **Belarritakoak**
   Dendan galdetu prezioak

opariak

Oraindino Mari Domingiri eta Olentzerori zer eskatu erabaki gabe zaude? Orriotan, etxe ondoan dituzun sei merkatariren proposamenak dakarzkizugu, Gabonetan ere herriko komertzioei babesa emateko.

Her EMAKUMEEN MODA ETA IRUDI-AHOLKULARITZA

Algortako etorbidea, 53. ALGORTA
Tel.: 944 040 680
heralgorta@gmail.com

7 **Jantzia eta txalekoa**
~~120€~~ 120€

8 **Amerikana eta praka**
~~99,95€~~ 64,95€

9 **Rains eta kapela**
~~120€~~ 27€

Oso GIZONENTZAKO MODA

Algortako etorbidea, 59. ALGORTA
Tel.: 653 721 056
osoalgorta@gmail.com

10 **Lumazko berokia**
JOTT
175 €

11 **UGG botak**
179€

12 **ANERKJENDT berokia**
199,90€

Aingara BORDATUAK

Aurrezki Kutxa kalea, 18. Itzubaltzeta/Romo
Tel.: 944 038 953
info@bordadosaingara.com
www.bordadosaingara.com

13 **Baserritar jantzia**
93,95€

14 **Kandelak**
7,95€

15 **Altzairuzko Eguzkilore lepokoa**
29,95€

Uribe Kosta Jostailuak dohaintzan emateko kanpainak

Gabonetan, ume bat ere ez jostailurik gabe

Hainbat herritarren eskuzabaltasunari esker, umeen garapen-prozesuan hain lagungarriak diren jostailuak etxe guztietara heltzen dira, Gabonetan ere.

Umeen garapen-prozesuan eragin positiboa dutela baieztatu dute hainbat ikerketek.

Aditu askok baieztatzen dutenez, jostailuak umeen hazkunde prozesuan lagungarriak dira, besteak beste, errealitatea aztertzen, bide berriak aurkitzen, irudimena garatzen, estrategiak probatzen, asmatzen, huts egiten eta berriro saiatzen laguntzen baitie. Tamalez, familia guztiek ez dute baliabiderik Gabonetan jostailu egokiak oparitzeko, eta horregatik, sasoi honetan hainbat erakundek horiek batzeko kanpainak egiten dituzte.

Gurutze Gorriak jostailuak batzeko kanpaina egin ohi du urtero; aurtengo helburua da gutxienez 5.000 biltzea, eta, besteak beste, Athleticek eta Bilbao Basketek babestu dute ekimena. Zentzu horretan, belikoak eta sexistak ez diren produktu berriak eskatu dituzte, jolaserako eskubidea bermatuta ez duten ume horiei dohaintzan emateko. Eskualdean, bilketa egingo dute abenduaren 16an eta 17an, Berangoko Decathlonen eta Eroskin, Erandioko Carrefourren eta Leioako Avanzadako eta Arteako Eroskietan; Sopelan eta Getxon dauden Gurutze Gorriko egoitzetan ere uneoro batuko dituzte jostailuak, urtarrilaren 4ra arte.

Koopera erakundearen kasuan, haiek ere kanpaina garrantzitsuak egiten dituzte gehien behar duten familiei jostailuak helarazteko. Euren kasuan, erabilitakoak enpresa, ikastetxe, erakunde edota kaleko edukiontzi zurietatik jasotzen dituzte, gero, horiek sailkatu eta euren dendetan salmentan jartzeko. «Guk ez ditugu jostailuak banatzen zuzenean, baina guregana datozen familia zaurgarriei txartel bat ematen diegu dendetan eskura ditzaten», azaldu du Marijose Atela Kooperako kideak. Aurten, dohaintzak eskualdeko hainbat lekutatik jaso dituztela azaldu du Atelak, hala nola «Sopelako igerilekutik, Azkorri ikastetxeko 2. Batxilergoko ikasleengandik eta Leioako Unilever enpresatik». ◂

Ez belikoak eta ez sexistak

Merkatuan dauden milaka aukeretan ez galtzeko, garrantzitsua da jostailuak ondo aukeratzea. Gurutze Gorriak gomendatzen du adinari erreparatzea eta sexistak ez izatea, generoen arteko bereizkeria ez dezatela sustatu, eta biolentziagaz edo gerragaz loturarik ez izatea. Aitzitik, zentzumenak eta garapen fisiko, intelektuala edo emozionala indartu dezatela aholkatzen dute.

Abenduaren 20an eta urtarrilaren 17an ATE IREKIAK

MATRIKULA EPEA ZABALIK

ander deuna IKASTOLA

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa www.anderdeuna.eus

Zatoz gu ezagutzera!

ABENDUAK 16 DICIEMBRE
Auditorium // 20:30 // 12 €

SOULFUL CHRISTMAS
Koko Jean-Davis (Cataluña)

ABENDUAK 18 DICIEMBRE
Auditorium // 17:00, 19:00 // 6 €

GOAZEN 9.0
Glu Glu Producciones (Euskadi)

ABENDUAK 26 DICIEMBRE
Auditorium // 18:00 // 6 € (BONOA: 24 €)

MUNA
Ganso & Cía. (Euskadi)

ABENDUAK 27 DICIEMBRE
Auditorium // 18:00 // 6 € (BONOA: 24 €)

NUMENAK
Yarleku Antzerki Taldea (Euskadi)

ABENDUAK 28 DICIEMBRE
Auditorium // 18:00 // 6 € (BONOA: 24 €)

LA MEJOR OBRA DE LA HISTORIA
Spasmo Teatro (Castilla y León)

ABENDUAK 29 DICIEMBRE
Auditorium // 18:00 // 6 € (BONOA: 24 €)

AIREPORTUAN
Potx eta Lotx (Euskadi)

ABENDUAK 30 DICIEMBRE
Auditorium // 18:00 // 6 € (BONOA: 24 €)

MUNDUARI ITZULIA 80 EGUNETAN
Glu Glu Producciones (Euskadi)

Leioa KULTURA

Bizkaia foru aldundia diputación foral

SAREA EUSKADIKO ANTZOKI SAREA RED VASCA DE TEATROS

Eguberriak ospatzeko zer prestatu ez dakizula?

Gazta eta zezin pintxoak

OSAGAIAK: 6 ogi-xerra, 2 gorringo, 150 gr parmesano-gazta eta 3 zezin-xerra fin.

PRESTAKUNTZA: Lehenik eta behin, gazta birrindu beharko dugu, eta, aldi berean, gorringoekin nahastu. Ondoren, ogi-xerra bakoitzaren gainean igurtzi beharko dugu nahasketa koilara baten laguntzarekin eta, hori egin ondoren, labean erretzen utziko dugu, 180 gradutan, bost minutuz. Azkenik, lehenengo mokadutxo honi amaiera emateko, zezin-xerrak hartu eta ogi bakoitzaren gainean jarrita zerbitzatuko dugu.

2 PERTSONENTZAKO | 10' KOZINATZEN

OSAGAIAK NON EROSI:

Prost urdaitegi alemana

Tel: **944 602 297** | **@charcuteriaprostalgorta**

Algortako Etorbidea, 69. ALGORTA

Zamburiñak plantxan

OSAGAIAK: 4 zamburiña, berakatz ale bat, oliba olioa eta perrexila.

ESKAINTZA: Hasteko, zamburiña bakoitza bere oskoletik atera eta plantxan kozinatuko dugu, minutu batez alde bakoitzetik su ertainean, eta gorde. Jarraian, olio erre bat egingo dugu berakatzarekin; bi aukera izango ditugu: txikituta berakatza jan nahi izanez gero, edo alea osorik olioak berakatzaren zaporea hartzeko bakarrik. Azkenik, zamburiñaren haragia bere oskolean jarri berriz, eta olioarekin zerbitzatu; perrexilarekin apaindu dezakegu.

2 PERTSONENTZAKO | 10' KOZINATZEN

OSAGAIAK NON EROSI:

Eskarra

Tel: **688 776 003** | **@eskarrataberna**

Torrene Kalea, 1. ALGORTA

Patrizia Vitelli | @foodiario

Elikadura osasuntsuari lotutako errezetak partekatzen ditu bere Instagram kontuan (@foodiario) Getxon bizi den Patrizia Vitelli arrasatearrak. 2018-19an zabaldu zuen kanal hori, argazkiak igo eta errezetak partekatzeko, hobby moduan. Gaur egun, 100.000 jarraitzailetik gora ditu, eta, besteak beste, ETB1eko 'Txoriene' gastronomia-saioa aurkezten du Zigor Iturrietagaz batera. Hona hemen lerrootarako bereziki proposatutako menu berezia.

Txerri azpizuna patata kremarekin

OSAGAIAK: Txerri azpizun bat, 250 ml ardo beltz, 250 ml haragi salda, 50 gr arto-irin, 2 patata, 50 ml esne eta 50 gr gurin.

PRESTAKUNTZA: Hasteko, azpizuna xerratan moztu, plantxan kozinatu eta gorde. Ondoren, patata zuritu, zatitu eta 15 minutuz egosi su bizian. Gero, iragazi eta esnearekin eta gurinarekin birrindu. Ardoa su bizian kozinatu. Arto irina saldan disolbatu eta ardoari bota. 10 minutu kozinatu, su motelean, saltsa loditu arte. Patata-krema oinarri bezala jarri, haragia gainean eta saltsa gehitu. Apaintzeko, nahi izanez gero, perrexil freskoa jarri.

4 PERTSONENTZAKO | 50' KOZINATZEN

OSAGAIAK NON EROSI:

Juan Mari harategia

Tel: **944 644 125** | **@carniceriajuanmari**

Mesedeetako Ama, 31. AREETA

Croissant budina

OSAGAIAK: 6 croissant, 500 ml esne, kanela zotz bat, laranja azal zati batzuk, 4 arrautza, 150 gr azukre, 60 gr ezti, karamelu likidoa eta esne-gain harrotua.

PRESTAKUNTZA: Esnea 10 minutuz kozinatu su motelean kanela eta laranjarekin. Iragazi eta azukrearekin, eztiarekin eta arrautzekin nahastu. Croissant-ak txikitu eta gehitu. Budin-molde bakoitzaren oinarrian karamelua eta nahasketa jarri. 180 graduetan erre 15 minutuz (molde handia bada, 30 minutu beharko ditugu) Maria bainuan. Azkenik, esne-gain harrotuarekin zerbitzatu.

OSAGAIAK NON EROSI:

Zurikaldai Neguri

Tel: **944 911 487** | **@zurikaldai_neguri**

Neguri hiribidea, 9. NEGURI

hirukalagunen txokoa

Parte hartuz, sari ed

Uribekostarren ekarpenari esker egin du bidea HIRUKA komunikazio-taldeak, eta halaxe egingo du hemendik aurrera ere.
Egin zaitez HIRUKAlagun eta beheko produktuen zozketan parte hartu ahal izango duzu; eta daborduko baldin bazara, lerroon alboko argibideei jarraitu besterik ez daukazu!

Fruta-otzara

Bizarrak fruta-dendaren eskumenez, produktu freskoz osatutako otzara duzu zain.

Donostiako Aquarium-a

Akuario bat baino gehiago den zentro honetaz gozatu gura duzu?

Eureka! museoa

Zientziaren munduan murgiltzeko museorako sarrerak zure eskura.

Pamielaren liburuak

Lau urtetik gorako liburu-sorta ederra prestatu dugu. Zuretzat gura dituzu?

Pamielaren liburuak

Helduentzako liburu-sorta ederra prestatu dugu. Zuretzat gura dituzu?

Bizirik dirauena liburua

Leire Lekuonaren azken lanaz gozatu gura duzu? Zure zain dago liburua!

errak esku-eskura!

Zozketa bakoitzaren inguruko informazio gehiago HIRUKA.EUS webgunean topa dezakezue.

Beheko sariren bat lortzeko zozketan parte hartu gura baduzu, eman ezazu izena HIRUKA.EUS webguneko zozketen atalean urtarrilaren 4a (eguaztena) baino lehenago. Zozketa bakoitzeko atal bana egongo da; eman izena dagokion lekuan.

Igeldo atrakzio-parkea

Donostiako parkerik ikusgarrienaz gozatu gura duzu? Bada, eman izena!

Ibaizabalen liburuak

Zortzi urtetik gorako liburu-sorta ederra prestatu dugu. Zuretzat gura dituzu?

Ibaizabalen liburuak

Hamar urtetik gorako liburu-sorta ederra prestatu dugu. Zuretzat gura dituzu?

Nekaturrerako bonua

Erreserba bat egiteko 80 euroko bonua dugu zozkatzeko. Norentzat ote?

Karpin parkea

Karrantzako bailaran kokatzen den Karpin Fauna bisitatu gura baduzu, ez galdu aukera!

Antzezlanaz goza ezazu

Souvenir, komeria estralurtarra antzezlanaz **gozatzeko sarrera bikoitzak ditugu zure zain.**

Zinez diot ***Blonde***

Marilyn Monroe, zinemetan berriz

Lanak erakuts dezakeen morbositatea alde batera utzita, pelikulak erabilitako errekurtsoak eta interpretazioak nabarmentzekoak dira.

SAIOA MIGUEL MORENO ▶

Marilyn Monroe-ri buruzko azken filma, bere protagonista bezain polemikoa izan da. Bere direktore Andrew Dominik-ek bi iritzi-korronte sortu ditu: batetik, liluratuta gelditu direnak eta, bestetik, txantxa bat dela diotenak. Ana de Armas Norma Jean-en azalean jarri da, Joyce Carol Oates-en nobelan oinarrituta dagoen istorioa kontatzeko. Idazlan hori, Marilyn Monroek jasandako tortura fisiko, psikologiko eta sexualean oinarritzen da batez ere, bai Hollywood-en industriaren aldetik, bai John F. Kennedy presidentearengatik. Honek, #Metoo mugimenduaren indarra berpiztu du, 2017an sortutakoa, emakumeak zinema-industrian jasandako biolentzia sexuala salatzekoa, hain zuzen ere. Pelikula honek, patriarkatuan eta kontsumismoan hondatuta dagoen emakumearen istorioa kontatzen digu. Zeinek bere talentu ederra erakusteko nahian, produktu sexual bilakatu zuten. Marilynen maitasun falta haurtzarotik hasi zen, bere amari eskizofrenia diagnostikatu ostean umezurztegira bidali zutenean. Ondoren, Joyce-en nobelak Marilyn zinema-industrian jasandako abortuetan, bortxaketan eta horrek sorturiko amesgaiztoetan fokua jartzen du, barbituriko eta odolezko maindireetan hil zen arte. Ikusten denez, Andrew Domick-ek industriak emakumeei sorturiko torturak erakusten digu, Marilynen aurpegia erabiliz, bere esperientzia traumatikoak produktu komertzial batean bihurtuz. Bere talentua eta zineman utzitako transzendentzia ahaztuz. Dena den, morbositatea alde batera utzita, *Blonde*-n erabilitako errekurtsoak aldarrikatzea merezi du. Ez da edukia, forma baizik, pelikula honen berezitasuna. ◀



Blonde

Jatorrizko izenburua:
Blonde
Zuzendaria:
Andrew Dominik
Gidoilaria:
Andrew Dominik
Nobela:
Joyce Carol Oates
Antzezleak:
Ana de Armas, Adrien Brody, Bobby Cannavale.
Iraupena: 166 min

Irakurrian ***Bizirik dirauena***

Bi ezezagunek topo egiten dutenean...

Benetako istorio batean oinarritutako eleberri labur honek bi pertsonen arteko adiskidetasun zintzoaren ibilbide ederra kontatzen digu.

LEIRE LEKUONA ▶

Nork daki zergatik edo zertarako egiten duten topo bi pertsonek bizitzan. Batzuen ustez, zereginen bat dugu hemen; alegia, esperientziaz hornitzea gure gizaki-itxurako izate aldrebes hau. Guk aukeratzen omen dugu zein bide jarraitu. Gertatzen da, ordea, pertsona batzuek gu aukeratzen gaituztela bidaia-lagun».

Hitz horiekin hasten da Leire Lekuona getxoztarraren eleberri labur hau, *Bizirik dirauena* izenburupean, non belaunaldi ezberdinetako bi pertsonen arteko adiskidetasun zintzo baten ibilbide ederra kontatuko digun.

Eleberria 1981. urtean kokatzen da, Sebastiaan gazteak gurasoen etxea utzi eta Amsterdamerako trena hartzen duen momentuan. Han ezagutuko du Len, 60 bat urteko ingelesa. Pixkanaka-pixkanaka, bien arteko adiskidetasuna handituz joango da, eta Sebastiaanek gaztaro aske eta korapilatsuaz gozatzen duen bitartean, Lenek bere bizitzaz hitz egingo dio lagun berriari, Bigarren Mundu Gerran jasandako istorio krudelak barne, eta zerk eraman zuen Ingalaterratik irten eta Holandako hiriburuan bizitzera. Eta, pausuz pausu, mostazadun ogitartekoak jaten eta te ingelesa edaten duten bitartean, bizitza oso bat emango dute elkarrekin, nahiz eta, urteak pasa ondoren, Sebastiaanek Bilbo aukeratuko duen bizileku.

IDAZLEARI BURUZ GEHIAGO. Leire Lekuona getxoztarrak beti izan du idazteko irrika, txikitatik. *Xixili. Hegatsa galdu nuenekoa* ipuinaren ostean berriro ekin zion lanari. Benetako istorio batean oinarritutako eleberria da hau: «belarrira heldu zitzaidan istorio hunkigarria plazaratu nahi izan dut, gertaerak eta pertsonak ez baitira kasualitatez heltzen gure bizitzara». ◀

Bizirik dirauena

Egilea:
Leire Lekuona
Argitaletxea:
Eguzkilore liburuak
Urtea:
2022
Orrialde kopurua:
122
Jatorrizko hizkuntza:
Euskara
12 urtetik aurrera

Gabonetan,
hamaikaukera
Getxon!
¡Toda la Navidad
en Getxo!
Getxon
daukazu!
Enpresen Bilatzailea
GetxonDaukazu.getxo.eus
Buscador de Empresas
EnGetxoLoTienes.getxo.eus
Getxo
bizi ezazu

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

Itzala

Ui... Trena galduko duela ematen du,
baina zein da bere itzal zuzena?



Bakoitzari berea

Pertsona hauek denek ekipajea galdu dute tren-geltokian. Eman bakoitzari berea.

Joan-etorria

Horra trena: goian badoa, eta behean badator. Aurki itzazu bien artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.



Margotu!

Hona hemen tren zahar bat. Dena margotu baino lehen, marraztuko dizkiozu:

1. Ke beltz zikina. Tximiniatik gora, ezkerrerantz doa.
2. Bi txantxangorri zorabiatuta.
3. Gidariaren burua leihoan, bisera eta guzti.
4. Zure gustuko animalia (azeria, elefantea...) kabinako teilatuaren gainean.



Hitzen, ekintzen eta errimen eztanda.
Herri bat BERRIAren kulturaren plazan.

Izan BERRIAlagun
6 hilabetez 50 euroan
eta eraman
BERRIAren agenda opari

Asteko ikuspegia

Eguneko ikuspegia

Bietako bat aukeran

Berria.eus/berrialaguna

* Abenduaren 20 arte • (0034) 943-30 43 45

berria zuk badakizulako

Euskararen baratzea... ezagutuz aldatzea! Joseba Santxo

Subila

Hotz da kanpoan. Sartu euskararen epelera. Jesarri sutondoan eta aditu suari. Mukur bat dago beheko suan erretzen. Gabon gauean erre ohi dugu eta subila deritzogu.

Su dantzariari adi gaudela, egin dezagun atzera denboran, kristautasunaren aurreko arora. Negualdian ez zen Gabonik orduan, gau onak eta txarrak egongo ziren arren. Eguzki amandreak ematen zigun babesa garai hartan. Argia ematen baitzigun. Gauekoren egitadak saihesteko era bakarra. Eta Eguzkia ostentzen zenean, eguzki lorea topatzen zuen etxeko atean, etxekoak inkomodatzera zetorkeen ezein izaki gaiztok.

Teleskopio espazialek lehen planoan erakutsi baino askoz lehenago barruntatu genuen eguzkia izar suduna zela. Eta urtean birritan egiten genion omen, udaburuan eta neguburuan. Eta sasoiotan sua isiotzen genuen, Egu jainkosaren argia eta indarra geureganatzeko. Haren babesa lortzeko. Haren konplize bihurtzeko. Donibane eta Gabon jaiak sortu baino askoz ere lehenago.

Orain hartu ilintia eta eragin txingarrei sua perpizteko. 'Subil' hitzak aldaera asko ditu euskaldunon ahotan: *sugil, suil, sunbil, sungil, supil, zubil, zupil, zurbil*... Itxuraz pentsa daiteke zura dagoela 'subil' berbaren etimologian. Mitxelenak, berriz, zurarekin baino gehiago, suarekin topatzen zion lotura. Aezkoa aldean Gabonari *subilaro* esaten diote, eta subilari *subilaro-egur*. R.M. Azkueren aita zen Eusebio M. Azkue bertsogileak, bestetik, subilaren iraupenaren berri eman zigun zeharka *Parnasorako bidea* bere lanean: «*Berrogei egunean / subila sutan lez / maitetasunan suak / euki eban negarrez*». Berrogei zenbakiaren sinbologia beste baterako lagarik, iltza ditzagun begiak suaren iruditerian. Alda ditzagun ohiturak, gura badugu. Egokitu ditzagun ekanduak, ahal badugu. Zaharberritu ditzagun usadioak, gustu badugu. Baina ez dezagun sua amatatu. Ez dezagun itzali suaren barruan dagoen mundua.

Sorion, Egu. Emaigun su. Izateko zoriontsu. Behar haugu. Argitu gu, Egu. ◂

Berba azoka

Sutondo
Etxeetan, eta bereziki, baserrietan, beheko sua dagoen tokia; supazter.

Aditu
Entzun, ulertu; gure eskualdean begiratu, erreparatu (aitu).

Mukur
Enborra.

Beheko su
Etxe barruan sua pizteko prestaturiko lekua.

Subil
Beheko suan erretzen den enborra.

Deritzogu
Deitzen diogu, esaten diogu.

Ostendu
Ezkutatu; ahozko gure aldaeran 'ostu'.

Udaburu
Udaren hasiera, udako solstizioa.

Neguburu
Neguaren hasiera, neguko solstizioa.

Isiotu
Piztu, izeki, irazeki.

Ilinti
Egur zati erdi errea.

Zur
Zuhaitz eta zuhaixken enbor, adar eta sustraiak osatzen dituen gai izpitsu eta trinkoa, bereziki lantzeko eta gauzakiak egiteko erabiltzen dena.

Egu
J.M. Barandiaranek, hipotesi hau erabat baieztaturik ez dagoela onartu arren, ortzi urdin edota distiratsuaren jainkoa izan litekeela zioen. Hortik letozke bizkaierazko *eguazten* eta *eguen* astegunak, bai eta ekaitz (**egu* + *gaitz*, eguraldi txarra) berba ere.

Zuen ekarpena ongarri zaigu: euskararenbaratzea@gmail.com

eskatu euskaraz eskaini euskaraz

Zuk aukeratzen dozu

Badakizu aukeratzen dozun berbaren araberakoak izango direla zure harremanak?

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Getxo
bizi ezazu

KAISHOP!

GABON HAUETAN
OPARITU **TOKIKO INFORMAZIOA,**

OPARITU **HIRUKA!**

35€
URTEAN

944 911 337
www.hiruka.eus
administrazioa@hiruka.eus